

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Bortizkeria errituala

Atera gara etxeko txikiekin buruhandi eta erraldoietara, eta hasi dira erraldoien baltsak eta umeen korrikaldiak. Buruhandi bat hurbildu zaigu erasokor, puxika altxatu eta kolpea jaurtitzera. Baina sorpresa, goxo-goxo, ia laztanduz pasa du goma-espuma umeen buru gainetik. Deskantsuan dagoen konpartsako kide batengana hurbildu naiz. “Puxikarik ez duzue erabiltzen ala?”, “Ez, ilegala da behi puxikak erabiltzea”. “Suabe jotzen duzue hala ere”. “Bai, guraso batzuk kexatu ziren eta Udalak eskatu digu ez gogor jotzeko”.

Inauteriak bizi-bizirik dituzten herrietan arruntak dira indarkeria agerraldiak. Maskaradetan kauterek eta buhameek ostikoka, zilipurdika, bultzaka, orruka eta elkarren gainera salto eginez pasatzen dituzte neguko igandeak. Ituren eta Zubietako mozorroek ankerkeria eta jarrera erasokorrean konpetitzen dute beraien artean. Luzaiden pazko igandez, Axe eta Tupina elkarri tiraka, bultzaka eta kolpeka hasi eta muturka bukatzeko gertu izaten dira. Hernaniko Axeridantzan, puxikekin armatuta eta sokari helduta zarta-hots ederra ateratzen dute inguratzen direnen bizkarrak ondo berotuz.

Ez dakit zein den indarkeria erritual horiek elikatzen dituen arrazoia —eta ez eskatu interpretazio psikoanalitikorik—, baina nire begiekin



DANI BLANCO

ikusi eta larruan frogatutakoa da folklolean nahiko maiz agertzen dela bortizkeria. Eta hara, bestelako baldintzetan inondik inora onartu ezin dudana indarkeria, jai giroan eta errituala denean erakargarri egiten zait. Benetak indarkeriak atzerakada eragiten dit. Ezin dut eraman. Baina indarkeria erritualak erakarririk egiten nau. Arizkun-en Hartza eta mozorroen eskutik makila-salda ederra hartu nuen azkenengoz inauterietan, baina berriz ere itzultzeko desiatzen nago.

«

Telebista piztu eta borroka eta hilketaz betetako marrazkiak ikusten dituzte gure txikiek, baina kalera atera eta superbabesaren araudia aplikatuz erraldoiak eta buruhandiak goxatzen ari gara

»

Telebista piztu eta borroka eta hilketaz betetako marrazkiak ikusten dituzte gure txikiek, baina kalera atera eta superbabesaren araudia aplikatuz erraldoiak eta buruhandiak goxatzen ari gara. Artisauek urteak daramatzate erraldoi eta buruhandiei itxura atsegina emateko ahaleginetan. Garai batekoak zantarrak, groteskoak, desproporztionatuak, desitxuratuak ziren. Orain hurbileko pertsonaia atsegina eta ederren traza eman nahi izaten diegu. Puxikarekin gogor jota ere zaila da inori min egitea, baina hala ere kolpe horiek biguntzeko agindua jaso du zenbaitek. Beldurra eragiteari uzten dioten egunean interes guztia galduko dutela iruditzen zait niri, baina joera garbia da, eta zaila dirudi horri aurre egitea. Disneyk habia egin du gure baratzetan. ■

TXANDAN

Igor Estankona

Beteta



Bere itzarotearen kristalean loa galdurik gogoratzen duzu, egun osoa eta gau osoa loa galdurik, azkenean iritsita jaiotzen berrien adinera. Eta beti imajinatu duzu zahar, azala zimur, beste mundu erraz bateko parte.

Beharbada orain irudituko zaizu eguzkia, orriak, orriak kaminoan, eguzkia kaminoan orrien gainean, hori dena bere esporetatik sortu dela. Baina ez da hala.

Bere zahartzarora, are bere heriotza ere, ez dira zertan izan alferrekoak. Gogoan hartu eman dizkizun lezioak, bizitzari buruzkoak. Gogoratu egunen artetik gogorre-

nak, gizon baten neurria ematen dutenak.

Erreminta ondo zorrozuta eduki. Txaparako tako baten haritz egurrarekin txaramel bat egin leihorako. Ortu bakartitik buelta bat eman, eta ez errezatu ez ostiarik bazkal aurretik. Siesta bota, ametsetan sentitu leunki ukitzen zuela bere emazte defuntuaren izter zuria.

Txakurrei pospolina askatu. Portalean eseri, zigarro bat bildu, lainoak ikusi Dimako haitzetan, eta duda egin: egun zoriontsu honen ostean etorriko ote da beste bat? ■